

Naia Aiestaran Iparragirre

B maila • 2 saria

Naia Aiestaran Iparragirre naiz. Beasainen jaio nintzen eta Txindoki instituan DBHko laugarren maila ikasten dut.

Txikitatik parte hartu izan dut lehiaketa honetan, baina beti prosazko ipuinak idatzi izan ditut. Aurten izan da olerkia idatzi dudan lehenengo aldia, eta ilusio handia egin dit sari hau irabazteak.

Olerki gehienek gai tristeak jorratzen dituztenez, bestelako olerki bat idatzi nahi izan dut, alaiagoa. Emaiza asko gustatu zait, nolabait nire izaeraren isla dela iruditzen zait.

Zuen gustokoa izatea espero dut!



TXIMELETA BAT NAIZELAKO...

Zoriontsu naiz,
lorenz lore,
hostoz hosto,
haizearekin dantzan
dabilen
tximeleta bat naizelako...

Zoriontsu naiz,
udaberrian
marrubien zuku gozoa
zurruputzen dudalako.
Ibaiaren erritmoan
arrainekin harrapaketan
jolasten naizelako.
Zure sudurrean paratu
eta hegoak astinduz
kilimak egiten dizkizudalako.

Zoriontsu naiz.
Eta zoriontsu izango naiz.
Datorrena datorrela.
Tximeleta bat naizelako...

Zeruak ekaitza dakarrenean...
hegan egiten jarraituko dut,
jolasean jarraituko dut,
indartsu,
irribarretsu,
ostadarra ikusi arte.
Haizearekin dantzan jarraituko dut.
Eta zoriontsu izango naiz.

Neguko gau luzeetan...
ilargiari abestuko diot
elurrak erabat estaltzen nauen arte.
Gai izango naiz
nire hegala astinduz
dantza egiteko.
Eta zoriontsu izango naiz.

Zoriontsu izango naiz,
beti izango dudalako
arrazoi bat,
ekaitzari, hotzari eta iluntasunari
ez ikusiarena egin,
eta, eguzkiaren aurpegi biribila amets,
hegan egiteko.
Nire hegaldi labur hau
bizitzaz betetzeko.
Eta mundu gris hau
nire hegats jostariekin
koloreztatzeko.

Zoriontsu naiz.
Eta zoriontsu izango naiz.
Tximeleta bat naizelako...